



SALMENTA IBILTARIA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA, NOIZBEHINKA BERARIAZKO FURGONETETAN EDO KAMIOIETAN JANARIA SALTZEA BAIMENTZE ALDERA

Portugaleteko Udalak 2016. urtean hainbat dei jaso zuen "food truck" direlakoak paratzea baimentzeko informazio eske. Izan ere, izen horrekin ezagutzen dira kalean janaria prestatzeko eta saltzeko egokitutako ibilgailuak. Eskatzaileen asmoa zen ibilgailuak zenbait ekitalditan paratzea, jai- eta kirol- ekitaldietan, besteak beste.

Bestetik, Salmenta Ibiltaria Arautzeko Udal Ordenantzak beren-beregi debekatzen du salmenta-mota hori 3.d) artikuluan: “ *Kamioi-dendetan: furgoneten moduko ibilgailuen edo ibilgailu berezien bidez egiten da, garraio eta baimendutako produktuen salmentaren gaineko araudi aplikagarriarekin bat etorritik. **Debekatuta dago salmenta mota honetan elikagaiak saltzea.***”

Egun, salmenta-mota hori, *street food* edo kaleko janaria, alegia, indar handia hartzen ari da. Izan ere, joera hori zabalduz doanez, gero eta ohikoagoa da beste udalerrri batzuetan gastronomia-aukera askotarikoak eskaintzen dituzten halako ibilgailuak ikustea. Halaber, arrisku sanitarioak murrizteko instalazioetako aurrerapenak kontuan izanik, Merkataritza Sailak beharrezko deritzo elikagaiak saltzeko debekuari buruzko artikulua aldatzeari. Helburua da gero eta zale gehiago dituen proiektu indartsu horretara gu ere lerratzea. Horiek horrela, gure herriko erakargarritasun turistiko eta gastronomikoa handiagotu liteke eta era berean, aukera berria emango genieke gure herritarrei aukera berri horretaz baliaturik aisialdiaz gozatzeko. Beraz, aipaturiko ordenantzaren 3. artikulua d) atala eta zuentzat aztergarri dena honelaxe geratuko litzateke idatzita:

3. artikulua- Salmenta ibiltariaren motak

d) Kamioi-dendetako salmenta: furgoneta moduko ibilgailuen edo kamioi egokitu baten bidez egiten da, garraio eta baimendutako produktuen salmentaren gaineko araudi aplikagarriarekin bat etorritik. **Elikagaien salmenta noizbehinkako merkatuak antolatzen direnean soilik baimenduko da.**”

Arestian aipaturiko baimen hori noizbehinkako merkatuen salmentara geratuko litzateke mugaturik, hau da, azokak, jaiak edo hiri-ekitaldi askotarikoak direla kausa, alde zuzenetik zehaztuak ez diren espazio publikoetan antolatzen direnean. (Ordenantzaren 3. artikulua b) atalak dioen bezalaxe.)

Portugaleteko herritarrak, elkarteak, merkataritza-ordezkariek eta ostalariak zareten aldetik jakin nahi dugu zer iritzia duzuen ordenantzaren aldaketa horretaz. Horretarako, zuek beharrezko deritze zuzen iritziak nahiz proposamenak aurkezteko 10 eguneko epea (2017ko martxoaren 17ra arte) duzue.